

# ERRAMUN OSA IBARLOZA

## EUSKARA, HABIL MUNDU GUZTIRA!


«Baina nik izkuntza larrekoa  
nai aunat noranaikoa:  
yagiteegoek igoa,  
soña zaar, berri gogoa;  
azal orizta, muin betirakoa»

Jose Maria Agirre «Xabier Lizardi»

Xabier Lizardik 1931ko *Biotz-begietan* poema-liburuan jaso zuen "Euzko bidaztiarena" poema. Sarreratxo honen hasieran ageri dena poema horren zati bat da, hain zuzen. Poema Unamunori, liburua argitara eman zen urtean, 1931ko apirilaren 12an izaniko hauteskundeetan Salamancako zinegotzi aukeratua izan ostean, apirilaren 14an, Salamancako udal-txearen balkoitik, Errepublikak aldarrikatu zuenari eskaini zion, desafio eran. Bide batez, halako pertsona entzutetsu bati eskaintza egin izanaren ausardia aitortu eta B. Etxeparek euskara

kanpora eta mundura atera zedin esanikoak gogorarazi zituen.

Poema bat eskaini nahi izan zion hizkuntza beraren berritze prozesuari, bere herria munduan, nonahi goretsiz. Artean, urte gutxi igaroak ziren 1917an Sotak gehiengo osoa eskuratu eta orduko Bizkaiko Diputazioaren bidez egitasmo berrizaille bati ekin zionetik. Euskara, euskal kultura, euskarazko irakaskuntza eta abar etorri ziren egitasmo haren altzoan, bai eta Euskaltzaindia sortzeko arrakasta izan zuen azken



ahalegina ere. Gero, diktadura batek apalduko zituen orduko ahaleginak... Errepublikak hartuko zion tokia ondoren, nahiz eta, etengabe Madrilgo agintariek –batekoek zein bestekoek– fidagaitz hartzen zuten euskara biziberritzeko ahalegin oro.

1936an matxinatu zirenak gogotik ahalegindu ziren euskal izenak jazartzen, euskara debekatzen eta ezabatzen, erabiltzen zutenak zigortzen... ez zen giro euskararentzat, gure aurrekoek belaunaldiz belaunaldi ondorengoe-taratu zigutenarentzat. Baina orduan ere, zailtasun guztien gaineratik zein azpitik, gure izanari eusteko sugarrak segitzen zuen, aho-mihietan, etxeko sukaldean. Horrela, frankismoak lepoa estutzen zigun soka zertxobait askatu zuenean, berriro ere, ez ahaleginik gabe, etorri zen goral-dia: ikastolak, helduen alfabetatzea, euskal kulturaren susperraldia, euskararen batasuna eta abar. Horrek eta Franco hil ostean berreskuratu genituen autogobernu erakundeen engaiamen-duak lagundu zuten galtzeko bidean zegoen hizkuntzaren susperraldiari ekitea. Horrenbeste-rainokoa da lortu dena, hemen jazo dena, ezen berariaz aztertzen dutela haien hizkuntza berreskuratu nahian ari diren hiztun-elkarteek, handiek zein txikiak.

Baina, orain egoera beste bat da, aurrealdean dauzkagun erronkak bestelakoak dira. Izan ere, euskal lurralde guztietan euskararen ezagutza asko indartu da hamarkada gutxi batzuetan –batez ere belaunaldi gazteenetan– eta, norabide horretan, laster berrogeita hamar urtez azpiko herritar gehienak euskaraz jakiteko eta ulertzeko gauza izango dira. Euskararen presentziak, ordea, ez du hainbeste aurrera egin –nabarmen hazi den arren–, egoera hori are begi bistakoagoa da herri handi eta hirietan, euskarak presentzia urria daukan eremuetan. Gainera, eremu horietako hizkuntza-portaerak biziki baldintzatzen du inguruko herrietakoa, bai eta herritarren ohiturak ere. G. Arestik esana da euskarak Bilbo irabazi behar duela eta Bilbok euskara, gure hizkuntzaren berreskurapena itzulezinezko egoera batera eramango badugu.

Baditugu hiztunak eta etorkizunean ere are gehiago izango ditugu. Kontua da, hiztun horien hizkuntza-gaitasuna landu behar dugula, euskara baliatzeko egiazko aukerak eskainiz,

euskararen bidez haien komunikazio beharrak asebete ditzaten. Euskararik txarrena erabiltzen ez dena delako eta onena, aldiz, une oro baliatzen duguna, horren bidez jasoko baitugu darabildun euskara hori, noranahiko bihurtuz.

Gure hizkuntza noranahikoa izan zedin nahi zuen X. Lizardik. Horretarako, hizkuntza ohituretan eragitea garrantzitsua da –besteak beste, Euskaraldia bezalako ekimenen bidez–; haren presentzia indartzea hil ala bizikoa da aisialdian, kirol jardueretan, ardua kargu esanguratsuak dituztenen aho-mihietan, lan munduan... Orain, pasa den mendean baino zailtasun txikiagoak eta egin dugun bidean jauzi erabakigarria egiteko aukera eta oinarriak dauzkagunean, iritsi da mementoa! Gure hiztun-elkartearen garaia da! Garrantzi bako liskarrak alboratzeko, ezinikusiak astintzeko, pentsae-raz askotarikoak garen herritarrak, erakundeak, elkargoak, elkarteak eta abar elkartzeko, erabateko lankidetzarako sasoa da!

Euskara indarberritzen jarraitzeko bide berriez gogoeta eta aurrealdean dauzkagun erronkez eta aukerez hitz egiteko, mintegia antolatu genuen Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak, joan den uztailaren 17an, bertan azalduko zenbait iritzi jaso dira *Hermes* honetan. Izan dadin gogoeta xume hau orain arte egin duguna aipatzeko baliagarri, bai eta ere gerokoaren pizgarri! Nahi baitugu, Lizardik bezala, euskara noranahikoa bilaka dadin. Iturri zaharretik ur berria edaten duen gure hizkuntzak, berria den ura edaten segi dezan betiko iturri zaharretik orain zein etorkizunean. Hala biz!